

MINISTROEN ORDEZKARIAK

Gomendioak

CM/Rec (2018) 8

2018ko urriaren 3a

Ministroen Batzordeak estatu kideei egindako CM/Rec (2018) 8 gomendia, justizia errestauratibo penalarri buruzkoa.

(Ministroen Batzordeak 2018ko urriaren 3an emana, ministroen ordezkarien 1.326. bilkuran)

** Itzulpena, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak agindu eta berrikusi duena, ez da ofiziala*

Ministroen Batzordeak, Europako Kontseiluaren Estatuak 15. artikuluko b letran ezartzen duenarekin bat etorritik:

Ikusi du Batasuneko estatuetan geroz eta handiagoa dela justizia errestauratiboak pizten duen interesa.

Badaki zigor-arloko sistema judizialean justizia errestauratiboa aplikatzea onuragarria izan daitekeela.

Ikusi du nolako aurrerapenak egin dituzten Batasuneko estatuak justizia errestauratiboa aplikatzen, arazoak konpontzeko prozesu malgu, adikor eta parte hartzekoa dela iritzita.

Badaki justizia errestauratiboa prozesu penal tradizionalen osagarria izan daitekeela edo haien ordezkari aplikatu daitekeela.

Uste du ezen, delituari heltzeko eta eragiten duen kaltea konpontzeko, behar-beharrezkoa dela prozesuetan gehiago parte hartzea agente interesdun guztiek, are biktimek eta delitugileek berek, ukitutako beste alderdi batzuek eta, oro har, jendarteak ere.

Badaki justizia errestauratiboaren bidez alderdi horien guztien premia eta interesak identifikatu ahal direla eta haiei erantzun modu orekatu eta justu batean eta lankidetzan jardunez.

Onartzen du guztiz zilegia dela biktimek berek iritzia eman nahi izatea beren biktimizazioaren erantzunari buruz, delitugileekin hitz egin nahi izatea eta justiziaren prozesuan erreparazioa eta ordaina lortu nahi izatea.

Uste du garrantzitsua dela erantzukizunaren zentzua zabaltzea delitugileen artean, bai eta egindako kaltea konpontzeko aukera ematea ere. Izan ere, horrela delitugileek errazago izango lukete gizarteratzen, kalte-ordainerako eta elkar ulertzeko bidea zabalduko litzateke, eta delitu gehiago egiteko gogoia kenduko litzateke.

Badaki justizia errestauratiboa lagungarria izan daitekeela herritarrek uler dezaten zein garrantzitsua den pertsonen eta komunitateen delituen eta beren ondoriozko gatazken prebentzioan eta delituei ematen zaien erantzunean egiten duten lana, eta horrela justizia penalarren erantzunak konstruktiboagoak izatea lor daitekeela.

Badaki justizia errestauratiboko zerbitzuak emateko ezinbestekoak direla ezagutza eta jardun-kode berariazkoak eta trebakuntza kalifikatua.

Badaki geroz eta ikerlan gehiagok erakusten dutela justizia errestauratiboa eraginkorra dela hainbat arlotan, batez ere honako hauetan: biktimen erreparazioa, delitugileek amore ematea, eta parte-hartzailearen asebetetasuna.

Badaki zigor-tipifikazio gogorregiak eta zigor-zehapen gehiago ezartzeak kalte egin diezaieketela pertsoneri eta gizarteei, batez ere talde zaugarrietako kideei edo baztertuta daudenei. Gainera, badaki justizia errestitutiboa delinkuentziari erantzuteko ere erabil daitekeela, bidezkoa denean.

Badaki delituak berekin dakarrela pertsonen harremanak eta eskubideak haustea eta horren erreparazioa lortzeko balitekeela zigor-zehapenez haraindi heltzen den erantzuna behar izatea.

Uste du gobernuz kanpoko erakundeek eta tokiko komunitateek ekarpen handiak egin ditzaketela bakea berreskuratzeko eta gizartean justizia eta harmonia lortzeko, eta ekimen publikoen eta pribatuen ahaleginak koordinatu behar direla.

Aztertu ditu Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean (ETS, 5. zk.) ezartzen diren baldintzak.

Kontuan dauka Haurren Eskubideen Erabilerari buruzko Europako Hitzarmena (ETS, 160. zk.) eta Ministroen Batzordeak Batasuneko estatuei emandako gomendio hauek: R(85)11, biktimek zigorzuzenbidean eta zigor-arloko prozeduran duten posizioari buruzkoa; R(87)18, zigor-justizia errazteari buruzkoa; R(87)20, gizarteak gazteen delinkuentziaren aurrean erreakzionatzen duen moduari buruzkoa; R(88)6, gizarteak migratzaileen familietako gazteen delinkuentziaren aurrean erreakzionatzen duen moduari buruzkoa; R(95)12, zigor-justiziaren kudeaketari buruzkoa; R(98)1, familia-bitartekaritzari buruzkoa; R(99)19, zigor-arloko bitartekaritzari buruzkoa; Rec(2006)2, Europako espetxe-arauei buruzkoa; Rec(2006)8, delituen biktimek arretari buruzkoa; CM/Rec(2010)1, Europako Kontseiluak baldintzapeko askatasunaz emandako arauei buruzkoa; CM/Rec(2017)3, neurri eta zehapen komunitarioen arloko Europako arauei buruzkoa.

Kontuan dauka Europako Batzordearen CEPEJ(2007)13 dokumentua, justiziaren eraginkortasunari buruzkoa, zigor-arloko bitartekaritzari buruzko R(99)19 gomendioa hobeto aplikatzeko gidalerroak ezartzen dituena.

Kontuan dauka Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/29/EB Zuzentaraua, delituen biktimek eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituena.

Kontuan dauka honako hauek: Vienako adierazpena delinkuentziaz eta justiziaz: XXI. mendeko erronkak (Nazio Batuen Hamargarren Biltzarra Delituen Prebentzioari eta Delinkuentearen Tratamenduari buruz, Viena, 2000ko apirila, 10-17, A/CONF. 187/4/Rev. 3); ECOSOC-en 2002/12 ebazpena, zigor-arloan justizia errestitutiboko programak erabiltzeko oinarrizko printzipioei buruzkoa; justizia errestitutiboko programei buruzko eskuliburua, Droga eta Delituen Aurkako Nazio Batuen Bulegoak 2006an argitaratua; RebuildingCommunityConnections - Mediation and RestorativeJusticein Europe (Komunitate-loturak berreraikitzen – bitartekaritza eta justizia errestitutiboa European), Europako Kontseiluak 2004an argitaratua.

Gomendatzen du Batasuneko estatuek kontuan eduki ditzatela gomendio honen eranskinean ezartzen diren printzipioak (gomendio hau taxutzeko R(99)19 gomendioa, zigor-arloko bitartekaritzari buruzkoa, hartu da oinarriztat) justizia errestitutiboa arautzeko, eta testu hau helaraz diezaieketela estatuko erakunde eta agintaritzak egokiei eta, batez ere, epaileei, fiskalei, poliziei, espetxe-zerbitzuei, baldintzapeko askatasuneko zerbitzuei, gazte-justiziako zerbitzuei, biktimei laguntzeko zerbitzuei eta justizia errestitutiboaren arloko erakundeiei.

CM/Rec(2018)8 gomendioaren eranskina

I. Gomendioaren esparrua

1. Gomendio honen asmoa da Batasuneko estatuak bultzatzea beren zigor-sistema judizialean justizia errestitatiboa aplikatzera eta horretarako arauak ezartzera. Gomendioan zigor-prozeduran justizia errestitatiboa aplikatzeko arauak sustatzen dira, eta ahaleginak egiten dira prozedura horretan ari direnen eskubideak babesteko eta beren beharrianak ahalik eta hobekien asetzeko. Gainera, gomendio honen bidez lortu nahi da agintaritza judizialek eta justizia errestitatiboaren eta zigor-justiziaren arloetako erakundeek errestitaziarako eredu berritzaileak sortzea, zigor-prozeduratik kanpo utz daitezkeen ereduak, hain zuzen ere.
2. Gomendio hau zigor-justiziaren arloan lan egiten duten erakunde publiko eta entitate pribatuentzat da, justizia errestitatiboko kasuak kudeatzen edo bideratzen dituztenentzat, alegia, edo, bestela, lan-jardunean justizia errestitatiboa erabili edo bere printzipioak aplikatu ahal dituztenentzat.

II. Definizio eta jardun-printzipio orokorrak

3. Hauxe da "justizia errestitatiboa": delitu baten ondoriozko kalteen konponketan biktimari eta delitugileari (beren borondatez) parte hartzeko aukera ematen zaien prozesu oro; batak zein besteak hirugarren pertsona trebatua eta inpartzialaren laguntza edukitzen dute prozesu horretan (hemendik aurrera "bideratzailea" esango diogu).
4. Justizia errestitatiboaren funtsa biktimaren eta delitugilearen arteko elkarrizketa da (zuzenekoa zein zeharkakoa); nolana ere, kasu batzuetan, bidezkoa izanez gero, delituak zuzenean edo zeharka ukitzen dituen beste pertsona batzuk ere aritzen dira elkarrizketa horretan. Besteak beste, biktimen aldekoek eta delitugileen aldekoek ere parte har dezakete, bai eta behar diren profesionalek eta delituaren eraginpeko komunitateetako kideek eta ordezkariak ere. Hemendik aurrera, gomendio honetan justizia errestitatiboan parte hartzen dutenei honela deituko diegu gomendio honetan: "alderdiak".
5. Herrialdearen eta administrazio-moduaren arabera, justizia errestitatiboak hainbat izen dauzka: biktimaren eta delitugilearen arteko bitartekaritza, zigor-arloko bitartekaritza, batzarerrestitatiboak, familia batzarrak, epai-zirkuluak edo bake-zirkuluak, besteak beste.
6. Justizia errestitatiboa zigor-arloko justizia-prozesuko fase guztietan erabil daiteke. Hain zuzen ere, zigor ordezkatzeko, karguak edo epaiketa ordezkari erabil daitezke, xedapen polizial edo judizial batekin batera erabil daiteke, epaiketaren aurretik edo horrekin batera aplika daiteke, kondena ematen denetik epaia eman arte aplika daiteke, epai baten osagarria izan daiteke, edo epaia eman edo osatu ondoren aplika daiteke. Justizia errestitatibora zigor-arloko justiziako erakundeek eta agintaritzek aginduta jo daitezke edo, bestela, alderdiek eskatuta.
7. Gainbegiratze judiziala beharrezkoagoa da justizia errestitatiboak eraginik edukiko badu erabaki judizialean, esate baterako, epaiketaren etendura ebatzen onargarriaren arabera gertatzen denean edo erabakia gomendatutako agindu edo epai modura agertzen denean auzitegiaren aurrean.
8. Horrenbestez, biktimen eta delitugileen arteko elkarrizketa aintzat hartzen ez duten jardunbideak justizia errestitatiboaren oinarritzko printzipioei irmo atxikita antolatu eta eskaini ahal dira (ikus III. eta VII. atalak). Halaber, justizia errestitatiboaren ereduak eta printzipioak zigor-prozeduratik kanpo ere aplika daitezke zigor-arloko sistema judizialean (ikus VII. atala).
9. "Justizia errestitatiboko zerbitzuak": justizia errestitatiboa aplikatzen duten pertsona eta erakunde guztiak. Justizia errestitatiboan aritzen diren erakunde espezializatuak izan daitezke, bai eta agintaritza judizialak, zigor-arloko justizia-erakundeak eta beste agintaritza

eskudun batzuk ere.

10. "Agintaritza judizialak": epaileak, auzitegiak eta fiskalak.
11. "Zigor-arloko justizia-erakundeak": polizia eta espetxe-zerbitzuak, baldintzapeko askatasuneko zerbitzuak, gazte-justiziako zerbitzuak eta biktimei laguntzeko zerbitzuak.
12. "Justizia errestitutiboko erakundeak": zigor-arloan justizia errestitutiboko zerbitzuak egiten dituzten erakunde espezializatuak (publikoak zein pribatuak).

III. Justizia errestitutiboaren oinarrizko printzipioak

13. Justizia errestitutiboaren oinarrizko printzipioak honako hauek dira: alderdiei aukera eman behar zaie delituaren erreparazioan buru-belarri aritzeko (agente interesdunen parte-hartzearen printzipioa); errestitutazioaren helburu nagusiek izan behar dute delituek pertsoneri, harremani eta gizarte osoari egiten dizkieten kalteei heltzea eta kalteon erreparazioa (kaltearen erreparazioaren printzipioa).
14. Horiez gain, badaude beste printzipio batzuk ere kontuan hartu beharrekoak: borondatezkotasuna; elkarrizketaren oinarriak eztabaida eta begirunea izatea; ardura bera edukitzea alderdi guztien beharrezanengatik eta interesengatik; ekitatea prozesuan; talde-akordioaren funtsa adostasuna izatea; jomugak erreparazioa, gizarteratzea eta elkar ulertzea izatea; menderatzerik ez gertatzea. Printzipio horiek esparru modura erabil daitezke zigor-arloko justizian berrikuntza zabalagoak egiteko.
15. Justizia errestitutiboa ez da antolatu behar ez eta aplikatu ere biktimaren edo delitugilearen interesen alde egiteko. Aitzitik, justizia errestitutiboak espazio neutrala eratzen du eta bertan laguntza eta sostengua ematen zaizkie alderdiei beren beharrezan adierazteko; gero beharrezanok ahal den heinean asetzen dira.
16. Justizia errestitutiboa borondatezkoa da. Beraz, aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa da alderdiek askatasunarekin adieraztea ados daudela, eta horren aurretik ondo azaldu behar zaizkie prozesuaren nondik-norakoak, gerta litezkeen emaitzak eta ondorioak, eta (behar den kasuetan) balitekeela justizia errestitutiboaren prozesuak eragina edukitzea ondoko prozesu penaletan. Prozesu osoan zehar, alderdiek noiznahi egin ahal izango dute atzera beren adostasunean.
17. Justizia errestitutiboa modu konfidentzian egin behar da. Justizia errestitutiboan, eztabaidak konfidentzialak izan behar dira; alderdiak ados ipini ezean, eztabaidetan azaltzen dena ezin da geroago inon erabili (ikus 53. araua).
18. Justizia errestitutiboak interes orokorreko zerbitzua izan behar du. Delituaren motak, ez larritasunak, ez kokapen geografikoak ezin dute eragotzi berez, besterik kontuan eduki gabe, biktimei eta delitugileei justizia errestitutiboa eskaintzea.
19. Justizia errestitutiboko zerbitzuak eskuragarri egon behar dira zigor-arloko justiziaren prozesuko fase guztietan. Zuzenbidearen arloko agintari eta profesional egokiek prozesuan parte hartu nahi duten erabakitzeko behar duten informazio guztia eman behar diete biktimei eta delitugileei. Agintaritza judizialek edo zigor-arloko justizia-erakundeek zigor-arloko justiziaren prozesuan noiznahi jo dezakete justizia errestitutibora; hori gorabehera, alderdiek ere beren borondatez eska dezakete justizia errestitutiboko zerbitzu batera bideratzeko.

20. Justizia errestitatiboko erakundeek autonomia nahikoa eduki behar dute zigor-arloko sistema judizialarekiko. Oreka mantendu behar da erakunde horien autonomiaren eta jardunerako arauet zor zaien errespetua bermatu beharraren artean.

IV. Justizia errestitatiboaren oinarri juridikoa zigor-arloko prozeduraren esparruan

21. Baliteke Batasuneko estatuak oinarri juridiko argia ezarri nahi izatea honako kasu hauetarako: agintaritza judizial batek justizia errestitatibora jotzen duenean; justizia errestitatiboaren erabilerak eragina daukanean, edo eduki lezakeenean, epaiketetan edo prozesu judizialeetan.
22. Baldin eta justizia errestitatiboa zigor-arloko prozeduran aplikatzen bada, politikak prestatu behar dira. Hain zuzen ere, kasuak justizia errestitatibora nola bideratzen diren eta horren aplikazioaren ondoren nola kudeatzen diren zehaztu behar da.
23. Justizia errestitatiboan berme prozesalak aplikatu behar dira. Hau da, alderdiei informazio argia eta eraginkorra eman behar zaie erreklamazioen prozedurez, eta alderdiek eskura eduki behar dituzte prozedura horiek. Beharrezkoa izanez gero, alderdiek eskura eduki behar dute itzulpen-zerbitzua edo laguntza juridikoa ere.
24. Justizia errestitatiboko prozesuan adingaberik egonez gero (biktima zein delitugile), gurasoek, legezko tutoreek edo beste pertsona heldu egokiren batek eskubidea eduki behar dute prozesuko egintza judizial guztietan egoteko, adingabearen eskubideak errespetatzen direla bermatzeko. Pertsona horiek prozedura judizialeetan nola parte hartu behar duten arautzen duten arau berezi eta berme juridiko guztiak modu berean aplikatu behar dira justizia errestitatiboan aritzen direnean ere.

V. Zigor-arloko justizia eta justizia errestitatiboa alderatuta

25. Justizia errestitatiboa onartu aurretik bideratzaileak ondo azaldu behar dizkie alderdiei bere eskubideak, justizia errestitatiboaren prozesuaren nondik-norakoak, parte hartzeko erabakiak ekar litzakeen ondorioak, eta erreklamazioei jaramon egiteko prozeduraren xehetasunak.
26. Justizia errestitatiboa aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa da alderdi guztiek beren adostasuna adieraztea, askatasunarekin eta informazioa jaso ondoren. Inor ezin da hertsatu bidegabe justizia errestitatiboan parte hartzera. Justizia errestitatiboa ezin da aplikatu prozesua ulertzeko gaitasunik ez duten pertsonekin (arrazoia gorabehera).
27. Justizia errestitatiboko zerbitzuek ahalik eta inklusiboan izan behar dute. Malgu jokatu behar da, ahalik eta pertsona gehienek eduki dezaten prozesuan parte hartzeko aukera.
28. Agintaritza judizialek eta zigor-arloko justizia-erakundeek ahal den guztietan kasuak justizia errestitatiboko zerbitzuetara bideratzeko behar diren inguruabarrak, prozedurak eta azpiegiturak sortu behar dituzte. Kasuak justizia errestitatibora bideratzeko ardura duten pertsonak kasu bat bideratu aurretik ez badakite ziur alderdien arteko adin-desberdintasunak, heldutasun-desberdintasunak, adimen-gaitasunaren desberdintasunak edo beste faktoreen batek justizia errestitatiboaren aplikazioa eragotziko duenez, justizia errestitatiboko zerbitzuetara jo behar dute. Kasua bideratu daitekeela uste izanez gero, bideratzaile kalifikatuak eta alderdiek, elkar hartuta, kasua justizia errestitatiborako egokia den ala ez zehaztu ahal izango dute.
29. Bideratzaileek astia eta baliabide egokiak eduki behar dituzte prestakuntza-lanak egiteko, arriskuak ebaluatzeko eta alderdiekin batera jarraipena egiteko. Bideratzailea agintaritza judizial edo zigor-arloko justizia-erakunde bateko kidea bada, justizia errestitatiboaren printzipioen arabera jardun behar du.

30. Oro har, alderdiek kasuko oinarrizko gertaerak onartu behar lituzkete justizia errestitatiboa aplikatzeko oinarriztat. Justizia errestitatiboan parte hartzea ezin da erabili erruduntasunaren onarpenaren frogatzat hurrengo prozedura judizialelan.
31. Zigor-arloko kasu bat justizia errestitatibora bideratzeko erabakiaren helburua bada prozedura judiziala etetea akordiora helduz gero, agintaritzak judizialei justizia errestitatiboko prozesuaren berri eman behar zaie zentzuzko epe batean.
32. Sistema judizialak kasu bat bideratzen badu justizia errestitatibora kondena edo epaia eman aurretik, alderdiak emaitzen inguruko akordio batera heldu ondoren egin beharrekoari buruzko erabakia agintaritzak judizialen esku utzi behar da.
33. Justizia errestitatiboari ekin baino lehen, bideratzaileari kasuaren inguruabar jakingarri guztien berri eman behar zaio, eta agintaritzak judizial edo zigor-arloko justizia-erakunde eskudunak behar duen informazio guztia eman behar dio.
34. Agintaritzak judizial batek prozesu penal bat etetea erabakitzen badu alderdiak justizia errestitatiboa aplikatzeko akordiora heldu direlako, eta horrek arrakasta badauka, erabakiaren estatusa estatu berean gertaera berberengatik eta pertsona berberen aurka hasitako prozesu penalak beste arrazoi batzuegatik eteten dituzten erabakiek duten estatus bera izango da.
35. Kasu bat agintaritzak judizialelara itzultzen bada alderdiak akordio batera heldu gabe edo lortutako akordioa aplikatu gabe, ondoren egin beharrekoari buruzko erabakia ahalik eta azkarren hartu behar da, nazioarteko legerian ezartzen diren berme prozesalak eta legalak kontuan hartuz.

VI. Justizia errestitatiboko zerbitzuen jarduna

36. Justizia errestitatiboko zerbitzuen gaineko arauak agintaritzak eskudunek onartu behar dituzte. Gaitasun-arauak eta arau etikoak prestatu behar dira, eta horiez gainera bideratzaileak hautatzeko, trebatzeko, babesteko eta ebaluatzeko prozedurak ere bai.
37. Justizia errestitatiboko zerbitzuak ematen dituztenak eta horren inguruko prestakuntza ematen dutenak agintaritzak eskudun batek gainbegiratu behar ditu.
38. Justizia errestitatiboko zerbitzuek bideratzaileen jarduna kontrolatu behar dute aldi-aldi, bermatu behar baita arauak errespetatzen direla eta ziurtasunarekin eta eraginkortasunarekin ari direla.
39. Justizia errestitatiboko zerbitzuek datuak ondo grabatzeko sistemak prestatu behar dituzte, lantzen dituzten kasuen gaineko informazioa bildu ahal izateko. Gutxienez, nolako justizia errestitatiboa aplikatu den erregistratu behar da (mota), edo, kasua onartu ez bada, zergatik ez den onartu Estatuako datu anonimo guztiak agintaritzak eskudun batek bildu behar ditu, eta interesdunen esku ipini behar dira, ikertu eta aztertu ditzaten.
40. Kontratitzen diren bideratzaileak gizarteko sektore guztietakoak izan behar dira; oro har, ondo ezagutu behar dituzte tokiko komunitateak eta kulturak. Justizia errestitatiboa kultura askotako inguruneetan aplikatzeko behar diren sentsibilitateak eta ahalmenak eduki behar dituzte.
41. Bideratzaileak gauza izan behar dira senez jokatzeko eta pertsonekin justizia errestitatiboa eraginkortasunarekin aplikatzeko behar den gizalegearekin aritzeko.
42. Bideratzaileek hastapen-prestakuntza jaso behar dute justizia errestitatiboa aplikatzeari ekin baino lehen; ondoren, etengabeko prestakuntza jaso behar dute. Prestakuntza horren helburua bideratzaileek gatazkak konpontzeko behar diren gaitasunak eta trebeziak edukitzea izan behar da; gainera, biktimekin, delitugileekin eta pertsona zaurgarriekin aritzeko bete beharrekoen berri ikasi behar dute, eta zigor-arloko sistema judizialaren inguruko oinarrizko ezagutza lortu behar dute. Zigor-arloko justizia-sistemako profesionalak

ere berariazko prestakuntza behar dute kasuak justizia errestituraturatibora bideratzeko.

43. Kasu zailtan, konplexuetan eta larrietan justizia errestituraturatiboa aplikatu baino lehen bideratzaileek esperientzia eduki behar dute, eta prestakuntza aurreratua jaso behar dute.
44. Bideratzaileen buru gainbegiraturatzaileek zerbitzuaren kudeaketari eta kasuen gainbegiraturazeari buruzko informazioa jaso behar dute; informazioa berariazkoa izan behar da justizia errestituraturatiborako.
45. Trebatzaileek prestakuntzan erabiltzen dituzten materialak eta ereduak bat etorri behar dira justizia errestituraturatiboaren arloko jardunbide eguneraturatuekin eta prestakuntza-jardun eraginkorrekinekin.
46. Justizia errestituraturatiboa modu inpartzialean aplikatu behar da, kasuko gertaerak eta alderdien beharritzanak eta interesak oinarritzat hartuz. Bideratzaileak alderdien duintasuna errespetatu behar du beti, eta berek ere elkarrekiko errespetuarekin jokatzeta bermatu behar du. Eragotzi behar da alderdi batek edo bideratzaileak prozesua bere mendean hartzeta. Prozesuan arretra bera eman behar zaie alderdi guztiei.
47. Justizia errestituraturatiboko zerbitzuek ingurune segurua eta eroso antolatu behar dute justizia errestituraturatiboaren prozesurako. Bideratzaileak denbora nahikoa eman behar du alderdiak prozesurako prestatzen, alderdien ahuleziei antzeman behar die, eta, alderdiren baten segurtasuna bermatzeko beharrezkoa bada, justizia errestituraturatiboa eten behar du.
48. Justizia errestituraturatiboa eraginkortasunarekin aplikatu behar da, baina alderdientzat zentzuzkoa den erritmoan. Kasu zailtan, konplexuetan eta larrietan gerta liteke prestakuntzak eta jarraipenak luze jotzeta eta alderdiak beste zerbitzu batzuetara bideratu behar izateta (trauma edo adikzioen tratamendua, esaterako).
49. Konfidentzialtasunaren printzipioa gorabehera, justizia errestituraturatiboa aplikatzean agerian gelditzen bada delitua berehala gertatu dela edo delitu larria gertatuko dela, bideratzaileak agintaritzeta eskudunen esku jarri behar du informazioa.
50. Akordioetan jarduketa bidezko, posible eta proportzionalak baino ezin dira ezarri, eta alderdi guztiek beren adostasuna adierazi behar dute, askatasunarekin eta informazioa jaso ondoren.
51. Ez da beharrezkoa akordioetan ikutzeko moduko emaitzarik ezartzeta. Alderdiek beren artean erabaki dezakete elkarrizketak beren beharritzanak eta interesak ase dituela.
52. Ahal dela, akordioen oinarriak alderdien beren ideiak izan behar dira. Bideratzaileek alderdiek eskatzen dietenean soilik hartu behar dute parte haien arteko akordioetan, edo akordioan ezartzen den zerbait argi eta garbi proportziorik gabea denean, batere errealista ez denean edo bidezkoa ez denean; halako kasuetan bideratzaileak zergatik hartzen duen parte azaldu eta erregistratu behar du.
53. Justizia errestituraturatiboak eraginik edukiko badu erabaki judizial batean, bideratzaileak aplikaturatutako neurrien eta justizia errestituraturatiboaren emaitzen edo ondorioen berri eman behar dio agintaritzeta judizial edo zigor-arloko justizia-erakunde eskudunari. 49. arauaren arabera bideratzaileek dituzten betebeharrak gorabehera, egiten dituzten txostenetan ezin dute ezer esan alderdien arteko eztabaidei buruz, ez iritzirik adierazi alderdiek justizia errestituraturatiboaren aplikazioan izan duten jokabideari buruz.

VII. Justizia errestituatiboaren etengabeko garapena

54. Eraginkortasunarekin aplikatuko bada, justizia errestituatiboak giza baliabide eta finantza-baliabide egokiak behar ditu. Aplikatzen bada, estatuko egiturek justizia errestituatiboaren arloko politikak eta aurrerapenak sustatu eta koordinatu behar dituzte modu koherente eta jasangarrian.
55. Aldian-aldian kontsultak egin behar zaizkie agintaritza judizialei, justizia errestituatiboko erakundeei eta zigor-arloko justizia-erakundeei, zuzenbideko profesionalei, delitugileei eta biktimen izenean aritzen diren taldeei, eta komunitateei, justizia errestituatiboaren esanahiaren eta helburuaren inguruko adostasunera heldu ahal izateko.
56. Agintaritza judizialak eta justizia errestituatiboko erakundeak eta zigor-arloko justizia-erakundeak bultzatu behar dira beren tokiko komunitateekin harremanak izan ditzaten justizia errestituatiboaren erabilerari buruzko informazioa emateko, eta prozesuan sartzeko, ahal bada.
57. Bideratzaile izateko kalifikazioa duten pertsonen soilik aplika dezakete justizia errestituatiboa. Hala ere, agintaritza judizialeko eta justizia errestituatiboko erakundeetako eta zigor-arloko justizia-erakundeetako langile eta zuzendari guztiek ezagutu behar litzukete gatazka-konponketako printzipioak eta justizia errestituatiboko printzipioak, beren eguneroko lanean aplikatu ahal izateko.
58. Delitugile baten kondenan ezartzen bada baldintzapeko askatasuneko zerbitzuek gainbegiratu behar dutela eta horien laguntza jaso behar duela, justizia errestituatiboa gainbegiratzearekin edo laguntzarekin batera edo horren aurretik aplika daiteke, eta epaiaren plangintzako lanetan ere bai. Justizia errestituatiboa epaiaren plangintzako lanak egiten diren artean aplikatzen bada, justizia errestituatiboko akordioak kontuan har litezke delitugilea gainbegiratzeko eta laguntza emateko planak egiteko.
59. Nahiz eta justizia errestituatiboaren ezaugarri berezia alderdien arteko elkarrizketa izan, biktimak eta delitugileak hitz egiten ez duten jarduketa asko antolatu eta egin daitezke, justizia errestituatiboaren printzipioak zorrotz beteta. Hain zuzen ere, eredu berritzaileak aplika daitezke erreparaziorako, biktimak osatzeko eta delitugileak gizarteratzeko. Hona batzuk: erreparazio komunitarioko programak, erreparazio-batzarrak, biktimen errestituatuzo zuzena, biktimei eta lekukoei laguntzeko programak, biktimei laguntzeko zirkuluak, komunitate terapeutikoak, biktimei buruzko sentsibilizazio-ikastaroak, espetxeratuaren edo delitugilearen heziketa, arazoak konpontzeko auzitegiak, biktimarioak laguntzeko eta euren erantzukizuneko zirkuluak, delitugileak gizarteratzeko zeremoniak, delitugileek eta beren senideek eta delituen beste biktima batzuek parte hartzen duten proiektuak. Horiek guztiak errestituatuzo xede hartuta egin daitezke, baldin eta justizia errestituatiboaren oinarriko printzipioak errespetatzen badira (ikus III. atala).
60. Justizia errestituatiboaren ereduak eta printzipioak zigor-prozeduratik kanpo ere aplika daitezke zigor-arloko sistema judizialean. Adibidez, herritarren eta polizien arteko gatazketan aplika daitezke, edo espetxeratutako pertsonen eta espetxeetako funtzionarioen arteko gatazketan, edo espetxean dauden pertsonen artekoetan, edo baldintzapeko askatasuneko agenteen eta horiek gainbegiratzen dituzten delitugileen arteko gatazketan. Agintaritza judizialeko edo zigor-arloko justizia-erakundeetako langileen arteko gatazketan ere aplika daitezke.
61. Justizia errestituatiboaren printzipioak eta ereduak modu proaktiboan erabil ditzakete agintaritza judizialek eta zigor-arloko justizia-erakundeek. Esate baterako, honako hauen arteko harremanak ezartzeko eta artatzeko erabil daitezke: zigor-arloko sistema judizialeko langileen artekoak; polizien eta komunitateko kideen artekoak; espetxean dauden pertsonen artekoak; espetxean dauden pertsonen eta beren senideen artekoak; espetxean dauden pertsonen eta espetxeetako funtzionarioen artekoak. Hori lagungarria izan daiteke talde horien artean edo talde bakoitzeko kideen artean konfiantza, errespetua eta gizarte kapitala sortzeko. Justizia errestituatiboaren printzipioak eta ereduak modu proaktiboan aplika ditzakete agintaritza judizialek eta zigor-arloko justizia-erakundeek kudeaketako erabakiak

hartzeko eta langileak kontsultatzeko, eta langileen kudeaketako eta antolamendu-erabakiak hartzeko beste esparru batzuetan ere bai. Horrela errestituzioaren kultura eratu daiteke erakunde horietan.

62. Justizia errestituzioaren aplikazioa autonomoa izan behar da zigor-arloko justizia-prozesuarekiko, justiziaerrestituzioaren erakundeekiko, agintaritzaren judizialekiko, zigor-arloko justizia-erakundeekiko eta lotutako gainerako zerbitzu publiko guztiekiko, baina, hala ere, horiek guztiek elkar hartuta jardun behar dute beren eskualdean justizia errestituzioa erabiltzea eta lantzea sustatzeko eta koordinatzeko.
63. Agintaritzaren judizialek eta zigor-arloko justizia-erakundeek aztertu behar lukete langileetako bat izendatzea agintaritzan edo erakundearen justizia errestituzioaren erabilera sustatzeko eta koordinatzeko ardurak eduki ditzan. Pertsona horren egitekoa izango litzateke, halaber, tokiko beste erakunde eta komunitate batzuekin lankidetzan aritzea justizia errestituzioa lantzen eta erabiltzen.
64. Batasuneko estatuak lankidetzan jardun behar dute justizia errestituzioa garatzen. Horretarako, elkarren esku jarri behar dute justizia errestituzioaren erabilerari, garapenera eta ondorioei buruzko informazioa, eta elkarrekin prestatu behar dituzte arlo honetako politikak, eredu berritzaileak, trebakuntza eta ikerkuntza. Justizia errestituzioaren arloko politikak eta jardunbideak ondo landuta dituzten Batasuneko estatuak —edota Batasuneko estatuak tokiko agintaritzek eta erakunde egokiek— beren informazioa, materiala eta ezagutza Batasuneko beste estatuaren edo tokiko agintaritzaren eta erakunde egokien esku jarri behar dituzte.
65. Estatu-gobernuek eta tokioek, agintaritzaren judizialek eta justizia errestituzioaren erakundeek eta zigor-arloko justizia-erakundeek herritarren artean justizia errestituzioaren berri zabaltzeko ekitaldiak antolatu behar dituzte.
66. Batasuneko estatuak justizia errestituzioaren inguruko ikerkuntza sustatu eta ahalbidetu behar dute, bai eta horretarako laguntzak eman ere, eta arlo horretan abian jartzen duten edo finantzatzen laguntzen duten programa eta proiektuak ebaluatzeko baliabideak eman behar dituzte. Era guztietako justizia errestituzioaren zerbitzuak aukera eman behar dute zerbitzua modu independentean ebaluatzeko, eta horretan lagundu behar dute.
67. Gomendio hau, erantsitako printzipioak eta horien aplikazioa aldian-aldian ebaluatu behar dira, Batasuneko estatuaren justizia errestituzioaren arloan aurrerapen garrantzitsuren bat gertatzen denean, eta, beharrezkoa izanez gero, berrikusi egin behar dira.